

Aretxagazeta

ETA GAINERA...

Ze barri?

ASTEKO GAIA

Osasun etxe berria sei hilabete barru /08

INAUTERIAK

Urdelardero egunak 26 urte /09

LEINTZ GATZAGA

Adin guztietarako ekintzak Inauterietan /10

Ogasuna


334.076,94 euro
%5,04

Lehendakaritza

1.903.012,57 euro
%28,69

Kultura

231.681,50 euro
%3,49



Besteak

1.062.401,72 euro
%16,02

Obra eta zerbitzuak

1.335.542,07 euro
%20,13

Ongizatea

527.101,81 euro
%7,95

Hirigintza

1.238.815,04 euro
%18,68

2004. urteko udal aurrekontua

TELEFONO JAKINGARRIAK

OROKORRAK	
Almen	943 71 49 07
Basotxo	943 77 09 81
Euskaltegia	943 79 21 68
Gizarte laguntzailea	943 71 18 62
Hezibide elkarte	934 79 31 32
Industrialdea	943 79 62 80
Instituitua	943 79 79 00
Kirol etxea	943 71 26 28
Kultura etxea	943 71 10 27
Kurtzebarri Eskola	943 79 00 49
Kurtzebarri BHI	943 79 57 40
Liburutegia	943 71 18 62
Loramendi EE	943 77 09 70
Ludoteka	943 79 05 81
Mankomunitatea	943 79 30 90
Murruxiko ME	943 79 93 74
Musika Eskola	943 79 36 50
Osasun etxea	943 71 19 59
Otalora	943 71 24 06
Parrokia (bulegoa)	943 79 18 42
Pausoka Haur Eskola	943 77 03 77
Postetxea	943 79 28 31
Santa Rita Ikastetxea	943 79 17 00
Taxi geltokia	943 77 12 64
Udal Bulegoak	943 71 18 62
Udaltzaingoa	943 71 18 63
Urats Gain	943 79 99 11

UDALTZAINGOA

Arrasate	943 79 14 39
LARRIALDIAK	
SOS Delak	112
Eskualde Ospitalea	943 03 53 00
Ertzaintza	943 53 47 20
Gurutze Gorria	943 76 55 76
Larrialdiak	943 46 11 11
Suhiltzaileak (Oñati)	943 78 28 00

GUARDIAKO FARMAZIA

ZAPATUA, 21
FRAILE, J. Herriko Plaza 10. 943 79 21 99

DOMEKA, 22
FRAILE, J. Herriko Plaza 10. 943 79 21 99

OHARRAK

'GULIVER' ANTZEZLANA
Pinpilinpauxa antzerki taldeak *Guliver* lana eskainiko du Kurtzebarri eskolan hila-ren 25ean, 17:00etan.

KINTO AFARIA
1950ean eta 1951ko urtarri-lean eta otsailan jaiotakoek afaria egingo dute hilaren 28an Taberna Berri jatetxe-an. Otsailaren 20a baino lehen eman behar da izena.

LORAMENDIREN AGENDA

KARIDADEKO BENTA
Otsailaren 27an, egubakoitza, Jon Maia bertsolariak osatutako Karidadeko Benta taldeak kontzertua eskainiko du Kurtzebarri eskolan, 22:30ean.

ORAIN DELA 11 URTE ARETXABALETAN

Txistulariek Iriarteren pieza jo zuten Aratusteetan

Demetrio Iriarte txistulari handiak 1972. urtean idatzitako pieza bat jo zuten, lehenengo aldiz, 1993ko Aratusteetan herriko txistulariek. *Aretxabaleako melodia herrikoa* zuen izena piezak. Aratuste egun haietan, gainera, Demetrio Txagorritxu ospitalean zegoen, gaixorik.



BERTAKO BERBAK/ Juan Martin Elexpuru

"Ipurzuloko"



Ipurdian ostikoa.
Emuten bostat ipurzuloko bat...

GORKA ORTEGA

LIBURUTEGIKO TXOKOA



KOLOSALA IZANGO DA

Joseba Sarrionandia
Txalaparta, 2003
138 orrialde

Lagun izoztua-n bezala Kalapor-tun, Deba eta Mutriku artean dagoen kostako herritxo imaginarioan kokatu du istorioa Sarrionandiak. Gerra zibileko kontuak dakartzatza, 11 urteko mutiko baten begiekin ikusita. Protagonista eta narratzailea mutikoa da, gerra jolas bat moduan ikusiko duena. Haurraren inozentziaren aitzakiarekin izugarritzko gertakariak kontatzen ditu egileak, benetan gertatu izan ez balira moduan.

Gerra zibilaren gaia azkenaldian asko erabili da, baina Sarrionandiak haurraren ikuspuntu berezia eman dio.

JOSEBA LOPEZ DE ARMENTIA

ZORIONAGURRAK



ESKORIATZA
Oihane Bengoa
9an, 11 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ESKORIATZA
Henar Valor
12an. Zorionak eta muxu handi bat, lagun eta etxeko partetik.



ARETXABALETA
Gotzone Güemes
16an. Berandu bada ere, zorionak eta muxu bat, lagun guztien partetik.



ESKORIATZA
Jone Lezeta
17an. Zorionak eta muxu handi bat, laneko lagun eta etxeko partetik.



ESKORIATZA
Arantza Igartua
17an. Zorionak, maitasunez, seme-alaben eta nesken partetik.



ARETXABALETA
Isabel Gartziaetxabe
19an, 91 urte. Zorionak eta muxu handi bat, alaben partetik.



ESKORIATZA
Maite Lezeta
21ean. Zorionak eta muxu handi bat, laneko lagun eta etxeko partetik.



ESKORIATZA
Nagore Gruzeta
22an, 4 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.




ARETXABALETA
Myriam Beltran de H.
22an. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ARETXABALETA
Nerea Zubillaga
22an, 12 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ESKORIATZA
Pello Sologastoa
23an. Zorionak eta muxu handi bat. Josu, Asier eta Aritz.



ESKORIATZA
Asier Urzelai
23an, 6 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.



ESKORIATZA
Lide Crespo
23an, 4 urte. Zorionak eta muxu handi bat, etxeko guztien partetik.

BABESLEA

PHOTOSYNTHESIS

argazkilaritza

35mm, APS eta digitalen errebelatuak 24 orduan. Tamaina guztiak.

Kamerak • Karnetetako argazkiak • Ezkontzak • Estudioko argazkiak
Herriko plaza 5 ARETXABALETA 943 79 79 67

MIREN • ESME • ARANTZAZU
RAKEL • SILVIA


Maiatz
ILEAPAINDEGIA

Antso Abarka 3, behea
Musakola - ARRASATE
Tel.: 943 79 58 78

ATREBENTZIAEZPADA/ Pentsau dozu zertaz mozorrotuko zaren aurtengo Aratustietan?



MAIALEN ELORZA
10 urte



GORKA ZUMALDE
2 urte




MALENA GONZALEZ
5 urte



JON MARTIN
15 urte



LAURA ETA LEIRE
10 urte



ANDER ANTIXIA
6 urte

Bai, ijitto jantziko gare kua-drillakuok domekan. 16 bat lagun batuko gare, eta Durana kalien zeozer gertatuko dogu. Martitzenien, eskolako gelakuok kukumarrero jantzitze urtengo dou.

Bai, indixo eta sorgin jantziko naz. Indixo domekan, eta sorgin martitzenien Pausokako lagunekin. Gelako danok jantziko gare, gaiñera, eta plazara fango gare Txino dantza egitten.

Bai, Edurnezuri jantziko naz. Soiñekue urdiñe eta larue da, eta lurreraiñokue. Trabatua eta lurrera ez jausteko etxien pruebak egitten ibilli naz, soiñekue jantzitze.

Bai, mozorrotuko nazela uste dot, baiñe ondiokan ez dakit zertaz. Eguakotxien Gasteizera fango gare lagunok zeozer erosten; hortan, ikusi egin biher azkeneko orduen ze topetan dogun.

Bai, sorgin jantziko gare bixok domekan. Gaiñera, papelaz egindeko lorak erregaletan ibilliko gare. Gelakuekin Lantzeko Inauterixetakuen moduen jantziko gare martitzenien.

Bai, bikingo jantziko naz domekan. Txalekue, kas-kue, ezpatie eta aixkorie gertu dauket, eta hanketan eta gorputzien artillie jarriko dot. Martitzenien, barrez, sorgin jantziko naz.

TXALOAK ETATXISTUAK



TXISTUAK ZINEGOTZIAREN HUTSUNEA Mari Carmen Atxutegi PSE/EEko zinegotzia lehenengo bi osoko bilkuretara bakarrik joan da. Ekainean osatu zituzten udalbatzak eta uztailean gobernu batzordeak, eta Mari Carmen bi horietan baino ez zen egon; gainerako guztietara huts egin du. Astelehenean, esaterako, 2004ko udal aurrekontua onartu zuten, eta oraingoan ere ez da agertu. /M.A.

ETABARRUAN...

ASTEAN BEHIN /04

2004ko udal aurrekontua

Ia zazpi milioi euroko aurrekontua onartu zuten, EAJ/EAren eta Aralarren aldeko botoekin.

ASTEAN BEHIN /05

Aratusteetako egitaraua

Gertu dauka aurtengo Aratusteetako egitaraua Kultura Sailak; baita koadrilek mozorroak ere.

KIROLAK /06

Zaraia MTK batzarra

Zaraia Mendizale Taldeak batzarra egingo du gaur. Diru kontuak eta urteko egitaraua zehaztuko dituzte.

ASTEKODATUA

21

HERRITAR IZANGO DIRA HAUTESKUNDE-MAHAIETAN

Astelehenean hautatu zituzten martxoaren 14ko hauteskunde-mahaietan jardungo duten herritarrek; 63 guztira. Hala ere, 21 bakarrik joango dira, gainerakoak ordezkoak dira-eta.

BESTEKEESANA

Orain 100 urte, otsailaren 9an, hain zuzen, goizeko 05:30ak aldera ateratzen ziren mojak zaldi gurdi batekin Arrasatetik, eta Aretxabaletara iritsi zirenean herriko alkateak eta parrokoak hartu zituzten. Mojak eta kapilaua, hau da, bertako abadea etorri ziren zaldi gurdian, eta kontatzen dutenez zaldiak ez zuen Aretxabaletarantz egin nahi. Mojek zerbait egin behar zutela pentsatu zuten, gaua edo iluntasuna behintzat aprobetxatu ahal izateko, eta kapilaua lurrera jaistea erabaki zuten. Kapilaua gurditik jaitsi zenean zaldia Aretxabaletarantz abiatu zen. Eta horrela, misterio eta anekdota artean, goizaldean iritsi ziren agustindar elkarteko mojak Aretxabaletara.

ARANTXA JAKA
Arrasate Irratia/04-02-16

HERRITARRENBERBAK/ Edorta Mendieta



Norena da errua?

Aspaldian denon ahotan dabil Aretxabaletan ez dela batere girorik. Ez gau girorik, ez giro kulturalik, ez ezer. Goiena.net atarian jarraitu ahal izan dut aste pare batez gai honen inguruan luzatu den eztabaida.

Gaueko giroa faltan botatzen dutenek, tabernarien errua dela diote; ez omen dakite euren tabernetan girorik jartzen eta horrek jendea uxatzen omen du. Herrian bizitza gehiago egotea gura luketenen udalaren errua dela uste dute, kultura ekintzendako ez dago eta nahikoa aurrekonturik. Beste batzuek herritarroi, oro har, botatzen digute errua gure aisialdia asetzerako beste herri batzuetara joaten garela, eta zer edo zer antolatzen denean ez dugulako parte hartzen.

Aretxabaletan geroz eta animazio eta bizitza gutxiago dagoenik ezin ukatu, baina zer egin hau aldatzeko? Beti gertatzen den legez, inor ez da egi osoaren jabe, nahiz eta

bakoitzak baduen arrazoi apurren bat.

Ezin ukatu ekintzak antolatu beharra dagoela, baina hau ez da aurrekontu arazoa bakarrik, imaginazio kontua baino. Zerbait antolatzeko ardura izan dezaketenek, udalak,

“Aretxabaletan geroz eta animazio eta bizitza gutxiago dagoenik ezin ukatu, baina zer egin hau aldatzeko?”

tabernariak edo elkarrekin, lehenik eta behin jendeak zer nahi duen jakin behar dute eta gero, hau eman ahal izateko, finantziarioa lortu. Eta finantziarioa lortzeko ez da udaletxera begira bakarrik egon

behar, badago eta udala ez den beste iturririk. Baina horrek bai eskatzen dituela imaginazioa eta dedikazioa.

Bi horiek eginda, gainontzeko berez etorriko da. Antolatutako ekintzek bizitza ematen diote herriari. Bizitzak animazioa dakar. Animazioak jendea. Eta jendeak jende gehiago. Jendeak dirua. Eta diruak gauza gehiago antolatu ahal izateko aukera.

Aretxagazeta

Durana 11
20550 ARETXABALETA
Tel.: 943 79 86 21
Faxa: 943 77 18 54
Posta-e: aretxagazeta@goiena.com

ZUZENDARIA
Mirari Altube

ERREDAKZIOA
Mirari Altube
Zuriñe Velez de Mendizabal

MAKETAZIOA
Alex Azkarate

PUBLIZITATEA
Ziortza Martin

ZUZENTZAILEA
Sergio Azkarate

LEGE-GORDAILUA
55-378-94

ISSN
1134-2609

TIRADA
2.800 ale

ARETXAGAZETA / ZE BARRI? • Edizio honek erakunde hauen laguntza izan du:



Eusko Jaurlaritzako
Kultura Saila



Gipuzkoako
Foru Aldundia



Aretxabaletako
Udala



Eskoriatzako
Udala



Leintz Gatzagako
Udala



M. J. Aretxaga

Hemen daz Aratustiek

Hainbeste gertatu biher ibilli dogu azken astiotan, eta azkenien ailegau jaku Aratustiok. Egualdi ona egin deixin eskatu biherko dotzau baten bati oin, bestela akabo gure mozorru. Nik baiño gertatu biher haundi-xauekin ibilli dien kuadrilla asko ei daz herrixen, eta itzelezko montajiek gertatu duskuela domekarako esan dustie. Kalejira formala eta guzti egin biher ei daue domekan. Ia bada, danak ondo ikusteko aukerie daukogun azken urtietan jente asko pillaketan da-eta Durana eta Mitarte kalietan...

Santa Ageda mutillek aittetu gureko nittuzke bukaketako; izen be, aurten oso formal dabit. Domeka izengo daue azken jai egune, eta ia itxuran esaten dutzien agur aurtenguek.

M. J. Aretxaga

UDAL AURREKONTUA/ Kultura ekipamendua osatzen joateko 300 mila euro gorde ditu udalbatzak aurtengo aurrekontuan

Zazpi milioi eurora ailegatzen ez den udal aurrekontua onartu zuten astelehenean

MIRARI ALTUBE

Astelehenean egindako osoko bilkuran onartu zuten 2004ko udal aurrekontua. PSE/EEko zinegotzia izan ezik gainerako guztiak elkartu ziren. EAJ/Eako eta Aralarko zinegotziek aldeko botoa eman zioten aurrekontuari; PPko bakarrak, ostera, aurkakoa.

Zazpi milioi eurora ez da ailegatzten aurtengo udal aurrekontua; iazkoarekin alderatuta ia 500 mila euro gutxiago onartu dituzte.

KULTURA EKIPAMENDUAK

Hain zuzen ere, Udaleko gastuetarako 6.632.632 euro zehaztu dituzte. Urats-Gain zaharren egoitzako aurrekontu osoa, ostera, 549.657 euro da eta Bihargintzari dagokiona, 1.901 euro. Horrenbestez, 2004ko udal aurrekontu osoa 6.967.689 euro da.

Inbertsioetarako ia bi milioi euro gorde dituzte, eta diru gehien lursailak erosteko eta herriko kaleen saneamendu lanak egiteko erabiliko dute. Hala ere, aipatzekoa da kultura ekipamenduetarako zehaztu duten kopurua: 300 mila euro, hain zuzen. Horrela, bada, kultura baliabideetan daukagun hutsunea betetzen hasteko konpromisoa hartu dute erabaki horrekin.

Udaleko lanpostuen zerrenda onartu zuten aurrekontuarekin batera astelehenean, eta bi lanpostu berri aurreikusitakoak: kirol etxeko harrera postua, bata,

2004rako aurrekontuak

Udala	6.632.632 €
Urats-Gain zaharren egoitza	549.657 €
Aretxabaletako Bihargintza SA	1.901 €
Udal Euskaltegiari ekarpena	66.376 €

UDAL AURREKONTU OSOA
6.967.689 €

eta informatika postua, bestea. Azken hori egun erdiz izango da.

LANKIDETZA-HITZARMENA

Aurtengo udal aurrekontuaz gain, beste gai batzuk ere erabaki zituzten asteleheneko ezohiko osoko bilkuran. Martxoaren 14an hauteskunde-mahaietan egon beharko duten herritarrak hautatu zituzten. Aukeratutakoek aste honetan bertan jaso dituzte abisuak etxean, eta erreklamazioak egin behar izanez gero, Bergarako epaitegian aurkeztu beharko dituzte datorren astean.

Bestalde, Eusko Jaurlaritzari lursail bat ematea onartu zuten. Kaminerokua baserri alboan, Tubos de Precision lantegiaren atzean dago lursaila, eta Eusko Jaurlaritzak etxebizitza sozialak egingo ditu bertan; 20 guztira.

Aurrekontua, batzordeka

Auzoak	51.710 €
Zerbitzuak	1.335.541 €
Lehendakaritza	1.903.013 €
Ekonomi garapena	262.737 €
Kultura	231.681 €
Kirolak	228.359 €
Hirigintza	1.238.814 €
Hezkuntza	80.800 €
Gizarte Ongizatea	527.102 €
Ogasuna	334.077 €
Euskara	233.356 €
Idazkaritza	168.779 €
KIUB	8.850 €
Udaltzaingoa	27.806 €

Inbertsio aipagarrienak

Lursailak erostea	500.105 €
Saneamenduak	420.346 €
Industri pabilioia	210.000 €
Kultura ekipamenduak	300.000 €
Santa Kurtz 5 plaza	70.000 €
Proiektuak	140.000 €
Mugarri azpiko ibilbidea	94.654 €
Eguzki energia kirol etxean	42.000 €
Futbol zelaiko taberna	25.000 €
Beste batzuk	143.478 €
GUZTIRA	1.945.583 €

Bukatzeko, Tokiko Agenda 21 Mankomunitate mailan aurrera eramateko lankidetzak hitzarmena sinatzea erabaki zuten. Mankomunitateko herri guztiek egingo

dute. Aretxabaletaren kasuan, gainera, diagnostia eta ekintza plana aurreko agintaldian egin zituzten, eta orain, beste pauso batzuk ematea egokituko zaie.

Hirusta
Jatetxea

Ilargi plaza 4
943 79 06 57
ARETXABALETA

Jon Diaz

Karakina

Loramendi 1
Tel.: 943 79 71 69
20550 ARETXABALETA

Expres

Santakurtz 16
943 79 23 43

GARBITU S. KOOP

Garbiketa
orokorrak

Errekabarren 3- Behea
ARETXABALETA
Tel: 943 79 01 28

Dorleta
taberna

Bezeroen zerbitzura

Loramendi 8
Aretxabaleta
Tel.943 79 94 15

Mobiliario
ARENAZA

- ALTZARIAK
- DISEINUA
- APAINKETA

Bizkaia 1 - Tel.: 943 79 08 07
ARETXABALETA

BAR
GVREA
JATETXEA

EGYNEKO MENYAK
OTARTEKORK ETX
PLATER KONBINATYAK

DURANA 32 • Tel. 943 792064
ARETXABALETA

O R L A

Herriko plaza z/g ARETXABALETA

L. GONZALEZ
PINTURAK

Pintura orokorra eta enpapelatua

Araba ibilbidea 24, 3-D
ARETXABALETA
686 113 581 / 943 79 65 46

J.J.
IRURE
ITURBENTZA

URA
GASA
KALEFAKZIOA

MITARTE, 15
ARETXABALETA
943 793 187

ARATUSTEAK/ Herriko koadrilak eta euren mozorroak izango dira protagonista

Mozorroa jantzi eta ondo pasatzeko eguna izango da Aratuste-domeka

M.A.

Udaleko Kultura Sailak gertu dauka aurtengo Aratusteetarako egitaraua. Hala ere, herriko koadrilak izango dira protagonista domekan, eta eurek girotuko dituzte kaleak egun guztian. Aratuste-martitzena, oster, ikastetxeetako umeendako eguna izango da.

Eguraldiak laguntzea baino ez dugu eskatuko aretxabaletarrok Aratusteetarako, eta gainerako osagaiak geuk jarriko ditugu.

ARATUSTE-DOMEKA

Mozorroei azken ukituak ematen dabilta herriko koadrilak, eta Udaleko Kultura Sailak gertu dauka egitaraua. 10:00etan, txistulariek emango diote ongi-torria egunari, eta 12:00etan, kalejira egingo dute koadrilek, txarangak lagunduta. 16 urtetik gorakoek, gainera, derrigorrez hartu beharko dute parte kalejiran, mozorro lehiaketan parte hartzeko. 12:30ean, Txino dantza egingo dute aurtengo Santa Ageda mutilek.

Arratsalde partean, 18:00etan, hain zuzen, kalejira egingo dute koadrilek eta herritarrek txa-



Koadrilan zein bakarrik, herritar gehienak mozorrotuko dira Aratuste-domekan.

rangarekin, eta 19:30ean, mozorro lehiaketako sariak banatuko dituzte udaletxean.

ARATUSTE-MARTITZENA

Martitzenean, oster, herriko ikastetxeetako ume eta gaztetxoak izango dira protagonista. 15:00etan, txarangarekin kalejira

egingo dute, eta 17:30ean, buruhandiak irtengo dira. 18:00etan, Euskal Disko Festa egingo dute plazan. 20:30ean, herri afaria egingo dute Taberna Berri jate-txean; eta Aratusteak bukatzeko, Txinoaren hiletara egingo dute, 22:30ean. Hiletara luto jantzita joan beharko dute herritarrek.

LABUR

Batzarra egingo du parrokiak bihar, eta eliztar guztiei egiten die dei parte hartzeko

Bihar, zapatua, batzarra egingo dute parrokiako kideek. Parrokiarendako eta kristau elkartearendako interesgarriak diren hainbat gai jorratuko dituzte; hortaz, eliztar guztiei egiten diete dei. Parrokiako lokaletan izango da batzarra, 18:00etan. Hori bukatutakoan, 19:30ean, sendotza sakramentua jasoko dute gazte batzuek.



Espainiari ezetz esateko eskatu zuten

Martxoaren 14ko hauteskundeak gertu ditugula-eta, joan zen egubakoitzean, Espainiaren inposaketari ezetz esateko eskatu zuten hainbat herritarrek. 50 lagun inguru batu ziren, eta Espainiako inposizioaren aurkako salaketa bilketa egin zuten.

PAUSOKA HAUR ESKOLA

2004-2005 ikasturterako izena emateko epea zabalik

Izenematea: otsailaren 16tik 27ra, 09:00etatik 11:00etara eta 16:30etik 18:00etara

BELORRIETA 8an GAUDE. 943 77 03 77

TALDE EGOKITUAK

- 0 eta 3 urtera arteko haurrak talde egokitueta
- ORDUTEGI ZABALA**
- 07:30etik 18:00etara
- Ordutegia moldatzeko aukera

JANGELA ZERBITZUAK

- Bertan gertatutako janaria
- Haur bakoitzari egokitutako dieta
- EGUTEGI ZABALA**
- Egutegi eskolarraz gain, Gabonaetan, Pazko astean eta uztaillaren 23ra arte zabalik.
- LOGELA**



PAUSOKA HAUR ESKOLA
Euskaraz hazi eta hezi



MENDIA

Ohiko bazkideen batzarra egingo du gaur Zaraia Mendizale Taldeak

Ekitaldi ugari dituzte antolatuta; martxoan, esaterako, eskola arteko mendi ibilaldi neurtua

M.A.

Urtero kaleratzen du Zaraia Mendizale Taldeak urteko egutegia, eta aurten ere ekintza ugari dituzte antolatuta. Mendi irteerak dira gehienak, baina irteera bereziak ere badituzte. Hori guztia antolatzeko eta diru kontuak begiratzeko bazkideen batzarra egingo dute gaur.

Gaur, egubakoitza, ohiko bazkideen batzarra egingo du Zaraia MTK. Diru kontuak eta urteko jardueren egitaraua izango dituzte hizpide.

ESKOLA ARTEKO MENDI IBILALDI NEURTUA
Irteeraz betetako egutegia gertatu ohi du Zaraia MTK bazkide eta herritarrendako, eta aurten ere halaxe egin du. Urtarrilean eta otsailean dagoeneko lau irteera egin dituzte, eta, ohiko mendi ibilaldiez gain, irteera bereziak ere badituzte, Aste Santuan, esaterako. Martxoaren 14an, osterako, XVII. eskola arteko mendi lehiaketa ibilaldi neurtua egingo dute. "Orain bederatzi urte ere geuk antolatu genuen, eta orduan, Gipuzkoako 1.000 ume baino gehia-



Bazkide asko ditu Zaraia MTK, baina 20 bat lagun elkartzten dira mendi irteeretan.

go etorri ziren", dio Martin Garaik, Zaraia MTKo presidentea. Hor-taz, erronka garrantzitsua izango dute aurten ere Zariaiko kideek.

Zaraia Mendizale Taldeak 100 bazkide inguru ditu, baina 20 lagun baino gehiago ez dira mendi

irteerara joaten. Gaur, 19:00etan, bazkideen batzarra egingo dute Nafarroa kalean duten egoitzan. Zuzendaritza batzordeko kideak elkartuko dira, eta datozen hila-beteetarako antolatutako irteerei azken ukituak emango dizkiete.

XAKEA

Sailkapeneko zazpigarren postuan dago Arlutz Xake Taldea, zapatuan bi puntu lortuta

Gasteizko Hotel Ruta de Europa izan zuen aurkari Arlutz Xake Taldeak zapatuan, eta bina puntu lortu zituen talde bakoitzak. Hori horrela, 7,5 puntu ditu Arlutzek eta sailkapeneko zazpigarren postuan dago. Gero eta gutxiago falta zaie denboraldia bukatzeko, martxoaren 6an, eta azken hiru taldeak beheko mailara jaitsiko dira; hortaz, gogor egin beharko du lan Arlutzek mailari eusteko.

PILOTA

Julian Retegi eta Aimar Olaizola etorriko dira martxoaren 2an Muru-Alde elkartera

Datorren martxoaren 2an, martitzena, Julian Retegi pilotari ohia, Aimar Olaizola pilotaria eta Iñigo Simon medikua etorriko dira Muru-Alde gastronomia elkartera. Muru-Alderaren 50. urteurrena ospatzeko gonbidatu dituzte Asegarce taldeko hiru langileak, eta pilotaren gainean egingo dute berba. Muru-Alde elkarrean izango da hitzaldia, 19:00etan, eta herritar guztiek har dezakete parte.

PARTIDUAK

FUTBOLA

Berio-UDA

Preferentea.

Zapatua. Donostia.

UDA/Almen-Burumendi

Lehenengo mailako gazteak.

Zapatua. 17:30. Ibarra.

PILOTA

Aretxab.-Zumaiako

Hirugarren mailako seniorrak.

Aretxab.-Anaitasuna

Lehen mailako seniorrak

Egubakoitza. 20:00. Iturrigorri.

EMAITZAK

FUTBOLA

UDA 3 Anaitasuna 2

Preferentea.

UDA 4 Kostkas 0

Ohorezko gazteak.

Luberri 3 UDA 2

Lehenengo mailako gazteak.

UDA/Almen 5 Intxurre 3

Lehenengo mailako kadeteak.

Ostadar 0 UDA 3

Bigarren mailako kadeteak.

Anorga 1 UDA 1

Ohorezko infantilak.

UDA/Almen 0 Lagun Onak 6

Emakumeen liga.

Antzuola 0 UDA/Almen 1

F-8 emakumeen kopa.

PILOTA

Udaberri Pilota Txapelketa

Aretxab. 22-Beloki 15

Hirugarren mailako seniorrak.

Giriza 22-Aretxab. 6

Hirugarren mailako seniorrak.

2. Merkealdia
50%
paino

mendiko arropetan
eta kirol-oinetakoetan

SPORTLAND ARRASATE
Garibai Etorbidea, 2-6
www.forumsport.com

SPORTLAND
FORUM SHOPS

KIROLA ZEURE ESKURA

Aitzorrotz elektronika

Akeita etxea

Alboka gazte moda

Ana's jantzi denda

Angelines autozerbitzua

Aretxabaleta iturgintza

Asensio jantzi denda

Begiondo optika

Calderon Soledad autozerbitz.

Errekabarren fruta denda

Etxabe harategia

Gantxegi harategia

Gemes edertze aretoa

Gertu janari prestatuak

Haurrak umeen moda

Iber loteria

Imanol janari denda

Iriarte umeen denda

Irudi ileapaindegia

Jauregi okindegia



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

Jon harategia

Josu harategia

Kioskoa kioskoa

Kixkur ileapaindegia

L-10 ileapaindegia

Lasai masajeak

Leibar arraindegia

Leintz mertzeria

Leniz liburudenda

M^a Jesus argazkilaritza

Mari Karmen oinetakoak

Maritxu mertzeria

Martin erlojudenda

Miren Zuriñe bitxitegia

Nerian loradenda

Photosynthesis argazkilaritza

Txilarra dietetika

Zainduz osasuna/fitnessa

Zare artegintza

Zubia oinetakoak



Aretxabaleta okindegia



*Inauterietan giro
onena!*

Basabe 2. Tel. 943 77 00 81
Loramendi 6. Tel. 943 77 17 19

Zebarri?

U R L A T I K L A N D E T A R A

ESKORIATZA ETA LEINTZ GATZAGA / Egubakoitza / 2004ko otsailaren 20a / 156. zenbakia

KOORDINATZAILEA: Aintzane Gardoki • Durana 11 20550 ARETXABAETA • Tel.: 943 79 86 21 • Faxa: 943 77 18 54 • Posta elektronikoa: zebarri@goiena.com • Lege gordailua: SS200/99

Osasun etxe berriko lanak sei hilabete barrurako amaitzea espero dute

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Eduardo Gorosarri plazan ari dira osasun etxe berria egiten. Orain arte baino zerbitzu gehiago edukiko ditu: erizain-degirako bi gela, pediatria zerbitzua, larrialdi gela... 347.555 euroko aurrekontua dute lanak egiteko, eta sei hilabeteko epea.

Osasun etxe berriko lanak hasi dituzte jada. Orain arte Santa Ana kaleko 19. zenbakian izan du egoitza Osakidetzako zerbitzuak. Lanak amaitutakoan, aldiz, Eduardo Gorosarri plazara lekualdatuko dute egoitza.

Eraikinak 408,27 metro koadro izango ditu, eta horietatik, 347,48 izango dira erabilgarriak.

ZERBITZU GEHIAGO

Herrian dagoen osasun etxea txiki-geratu da Eskoriatzako biztanle guztientzat. Hori dela eta, Udalak bereak ziren lur batzuk eman dizkio Osakidetzari. Baina metro koadro guztietatik, 45 partikular batenak ziren. Hala, harekin akordioa egin, eta azkenean, osasun etxe berrirako erabiliko dituzte lurrok.



Gaur egun Santa Ana kaleko osasun etxean baino zerbitzu gehiago eskainiko ditu egoitza berriak.

Lanak, gutxi gorabehera, sei hilabete iraungo dutela adierazi digu Juan Carlos Bengoa alkateak. Egoitza berriak, bestalde, zaharrak orain arte ez zituen zer-

bitzu ugari edukiko ditu. Horrela, herritarrei eskaintza hobea ematea espero dute: larrialdi gela, pediatria, sendagileentzako eta erizaindegirako bina kontsulta

gela, hainbat kontsultatarako itxaron gelak... Lanak amaitzerakoan, eskoriatzarrek behar dituzten zaintza eta beharrak herrian bertan asetzea espero dute.

Lanak egiteko 347.555 euroko aurrekontua dago, eta sei hilabete irautea espero dute

Udalak 408 metro koadro eman dizkio Osakidetzari, egoitza berria finkatzeko

Orain baino zerbitzu gehiago: pediatria, erizaindegia, larrialdi gela...



Hauteskundeetako mahaiak osatu ziren astelehenean

Otsailaren 16an, astelehenean, martxoaren 14ko hauteskundeetarako mahaiak osatzeko zozketa egin zuten. Udaletxeko osoko bilkuren aretoan egin zuten Udal ordezkariak zozketa. Programa informatikorik ez zegoenez, eskuz egin behar izan zuten. Guztira lau mahai egongo dira bozkatzeko egun horretan Eskoriatzan. Bakoitzean hiru lagunek egon behar dute, legez, baina, badaezpada ere, horien ordezkariak ere aukeratu zituzten astelehenean. /Z.V.M.

LABUR

Olazar elkarteak kuota ordaintzeko epea ireki du

Eskoriatzako Olazar erretiratuen elkarteak bazkideen kuota ordaintzeko epea ireki du. Otsaileko bost egunetan egin ahal izango da diru-sarrera: otsailaren 23an, 24an, 25ean, 26an eta 27an.

Arratsaldeko 16:00etatik 18:00etara erretiratuen elkarteko bulegora gerturatu eta bertan bost euro kobratuko zaie elkarteko bazkideei. Diru-sarrerara egiteko, Eskoriatzako erretiratuek bazkide txartela eraman beharko dutela azpimarratu dute arduradunek.

TELEFONO JAKINGARRIAK

ESKORIATZA

Udaletxea	943 71 44 07
Udal bulegoak	943 71 45 32
Udaltzaingoa	943 71 44 07
Euskaltegia	943 79 21 68
Kultura etxea	943 71 46 88
Gizarte laguntzailea	943 71 31 36
Kirol etxea	943 71 53 28
Liburutegia	943 71 31 35
Luis Ezeiza	943 71 53 56
Arizmendi Ikastola-Jose Arana	943 77 20 25
Arizmendi Ikastola-Almen	943 77 20 25
Museo Eskola	943 71 54 53
Axtroki	943 71 54 34
HUHEZI	943 71 41 57
Osakidetza	943 71 44 52
Telesko	943 71 49 17
Taxiak	943 71 40 59

BESTELAKOAK

Eskualde ospitalea (Arrasate)	943 00 53 00
Gurutze Gorria (Bergara)	943 76 55 76
Ertzaintza (Arrasate)	943 79 71 99
Suhiltzaileak (Oñati)	943 79 28 00
Renfe (Zumarraga)	943 72 15 15
Renfe (Gasteiz)	945 23 20 30
PESA (Arrasate)	902 10 12 10
Larrialdiak (Arrasate)	943 77 10 43
SOS Delak	112

OHARRAK

INAUTERIAK

Bihar, herri bazkaria egongo da, 14:30ean, pilotalekuan: babarrun gorriak, gazta, irasagarra (menbrilloa), kafea eta pattarra izango da menua. 17:30ean, Luis Ezeiza ikastetxearen 60ko hamarkadako Inauteri festa. Joselu Anaiek giroa alaituko dute, 19:30ean, plazan. Martitzenean, Kukumarro egongo da herrian, eta 17:00etan, herriarrek hura egingo dute gaitz guztien errudun.

GARIZUMA AURRETIK TXERRIKIA JATEKO OSPAKIZUNA

Hogeita sei urte daramatza Urdelardero egunak Inauteriei ongiatorria egiten

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Iritsi dira Inauteriak áurtengoan ere. Mozorrotzeko eguna jende askorentzat. Duela 26 urte, jai horiek iragartzen dituen ekimena egiten hasi zen Eskoriatzan. Urdelardero eguna da hori. Atzo, otsailak 19, izan zen Urdelardero eguna.

JAIAREN HASTAPENA

Urdelardero eguna duela 26 urte hasi zen ospatzen. Inauteriak gainean ditugula adierazteko balio digun ospakizuna da.

Egun hori ospatzen hasi zirenean, herriko gazteak baserriar jantzita etxez etxe joaten ziren abesten. Trukean, jendeak txerriak ematen zien kantari gazteei, eta eskuetan eramaten zituzten ziri edo makiletan sartzen zuten jasotako jana.

Egun horrek badu bere esanahia. *Lardero* hitza latinetik dator, eta koipea esan gura du euskaraz. Egun horretan txerriak zergatik eskatzen zen jakiteko, Aratusteen ondorengo datari begiratu behar zaio. Kristautasunak era guztietako penitentzi, sakrifizio, zigor eta barauz osatutako denbora-tartea ezarri zuen, Garizuma, alegia. Horren aurretik, oreka bilatu guran, Inauteriak ospatzen hasi ziren, Garizumaren esanahiaren aurkako ekintzez osatzen zirenak. Horrela, ulergarri egiten da haurrak txerriki eske irtetea. Hala ere, gauzak aldatuz joan dira, eta gaur egun, txerriki barik, gozokiak jasotzen dituzte trukean herriko gazteek.



Urdelardero Inauteriak iragartzen ditu. Martitzenean Kukumarroak egongo dira.

AURTEN ERE OSPATU DA

Aurtengo Urdelardero eguna, azken urteotakoa bezala, herriko ikastetxeetako haurren kalejira batekin hasi zen. Ekitaldia amaitzerakoan, eguerdi aldera, plazaraino joan eta tripa betetzeko aukera izan zuten hara gertu-

ratutakoek, txistorra goxo-goxoan zuten-eta.

Arratsaldez ere umeek izan zuten zer egin. Azkona taldearen eskutik umeentzako jaialdia prestatu zuten Udaleko Kultura Saileko kideek, eta primeran pasa zuten gaztetxoek.

LABUR

Katekesian izena emateko deialdia herriko gazteei

Katekesian hasi gura duten 12 urtetik gorako Eskoriatzako gaztetxoek hilaren 27an, egubakoitzean, izena emateko aukera izango dute, 18:00etatik 19:00etara. Hala ere, egun horretan joan ezin baina katekesian parte hartu gura dutenek hilaren 29an sakristiara jo eta bertan izena eman ahal izango dute. Horrez gainera, beste modu batera ere eman daiteke izena: gaztekristauak@euskalerrria.org helbide elektronikora norberaren izen-abizenak bidalita, hain zuzen ere.

Nekazaritza ekologikoaren hastapen ikastaroa

Euskadiko Nekazaritza Ekologikoko Federazioak (Ekonekazaritza), Eskoriatzako Udalak eta Gipuzkoako Nekazaritza Ekologikoko Elkarteak (Biolur Gipuzkoa) nekazaritza ekologikoaren hastapen ikastaroa antolatu dute elkarlanean. Martxoaren 2an, 4an, 9an, 11n eta 16an emango dituzte eskolak, 15:30etik 18:30era. Izenematea otsailaren 26a baino lehen egin beharko dute interesatuek kultura etxean. Lurra lantzen, plaga eta gaixotasunak identifikatzen eta oinarriko teknikak praktikan jartzen ikasiko dute. Eta martxoaren 18an eta 23an, hainbat baserri bisitatzea joango dira parte-hartzaileak.

FAGOR
Fagor Ederlan

Fagor Ederlan, Elk. Koop.
Gastafadul suzoa 42
20540 Eskoriatza
Gipuzkoa
Tel: +34 943 719 000
Fax: +34 943 719 001

NAIRA
Taberna

Aranburuzabala 16
Eskoriatza. 943 71 46 71

943 771255

MARIA JESUS
ARGAZKILARIA

JAUNARTZEKO ERREPORTAJEAK
60 EUROTİK AURRERA

ARETXABAETA HERRIKO PLAZA 10
WWW.mjargazki.com

Adin guztietako jendearentzako ekintzak antolatu dituzte biharko

ZURIÑE VELEZ DE MENDIZABAL

Aurten ere Inauteriak ospatzeko hainbat ekimen antolatu dituzte herrian. Gazteentzako jokoak eta helduentzako herri txikiteoa. Horren ondoren, guztiak batera Ostatu taberna gerturatu, eta afari goxoa, eta dantzaldia izango dute gatzagarrek bihar, zapatua.

Azken urteetan bezala, Inauteriak ospatzeko hainbat ekimen egingo dituzte bihar, zapatua, herrian. Gazte eta helduentzako; adin guztietako pertsonentzako egitaraua antolatu dute Udaleko ordezkariak biharko, eta horrela jakinarazi digu Jon Sasiain Kultura zinegotziak. Inauterizapatua bikain igarotzeko aukera Leintz Gatzagan.

ARRATSALDEAN, HAINBAT EKIMEN

Gatzagarrek Aratusteetako jaiez gozatzeko aukera izango dute bihar, hilaren 21ean. Adin guztietako jendearentzako egitaraua osatu nahi izan du Udalak, eta gazteengandik hasiko dira ospakizunak.

Arratsaldeko 17:00etan frontoian elkartu, eta gaztetxoek gustuko dituzten jokoak izango dira. Ekintzetako batzuk, besteak beste, puxikak apurtu eta arrainak arrantzatzea izango dira. Gatzagarrez gain, herri inguruetako gaztetxoak gerturatzea espero dutela adierazi digu Sasiainek.

Horren ondoren, herri txikiteoan parte hartzeko deialdia egin



Aurten ere afarira mozarrotuta joatea eskatzen diete gatzagarrei Inauterietako giroan hobeto sartzeko.

du Gatzagako Kultura zinegotziak. Herrira gerturatzen direnak jai giroan sartzeko modua egokia dela adierazi digu, eta baita afal ordurako prestatzeko ere.

AFARIA ETA DANTZALDIA

Arratsaldean jolasean eta tabernaz taberna aritu ondoren, sabela ondo betetzeko aukera izango dute gatzagarrek zapatu gauean. Atzo amaitu zen izena

emateko aukera, eta guztira 55 bat lagun bilduko dira mahaia- ren bueltan, 21:30ean.

Ostatu jatetxera gerturatu eta giro paregabean afari goxoa izango dute. Entsalada, frikaxa eta bildotsa izango da menu nagusia, baina gura dutenek xerra jateko aukera ere izango dute.

Lagun artean afaldu ondoren, musika egongo da, afaritara gerturatutakoak animatzeko. "Are-

txabaleko Basabe etorriko da, eta Ostatur egongo garen guztiok alaituko gaituela espero dut", adierazi du Jon Sasiainek.

Jai giroan buru-belarri sartzeko gomendiotxo bat egin nahi izan die herritarrei Kultura zinegotziak: "Guztiok, bai gazte eta bai helduok, Gatzagara mozarroturik etortzea gurako nuke". Beraz, badago zer egin asteburu honetan Gatzagan.

LABUR

Hiru gatzagar hauteskundeetako mahaietan

Ibarreko beste herrietan bezala, Gatzagan ere hauteskunde mahaietan jardungo duten pertsonak hautatu zituzten, zozketa bidez, martitzenean. Guztira 215 gatzagarrek izango dute martxoaren 14an bozatzeko eskubidea. Horieta-ko hiruri mahaietan egotea e-ko kitu zaie. Hala ere, hiru horietan ordezkariak hautatu zituzten guztira bederatzita pertsona. Horrez gainera, martitzenean Mankomunitateko ordezkariak aukeratzeko bilkura egingo zuten Gatzagako udaletxean.

Beste istripu bat Arlabanen aurreko egubakoitzean

Joan den egubakoitzean, Arlaban itxi egin behar izan zuten istripu baten ondorioz. Kamioi bat zangara joan zen, kontrako noranzkoan zihoban eta burdinazko habeak zeramatzen kamioi bati zama erori zitzaion lako errepidera. Ondorioz, habebatek gasolio gordailua zulatu zion. Garabia iritsi bitartean kamioiak zeuden tokian gertatu ziren. Ertzaintzak zirkulazioa etetea erabaki zuen, eta Gatzagako bidetik bideratu zituen ibilgailuak. Hala, iluntzean normaltasunera itzuli zuten Arlaban. Zoritxarrez, astero izaten dira istripuak bide horretan, eta konponbidea bilatu ezazan, horrela izaten jarraituko du

ARATUSTEAK 2004 GOITB-N

Nor zara zu?


ARATUSTEAK 2004
Saio berezia

Eguaztenean, otsailaren 25ean
21:15ean

Goitb
Goiena Telebista

**Ikusiko
duzu!**





EGUZKIGRAF **inprimategia**

Aretxabaletako Industrialdea F-0-4

Araba ibilbidea

20550 Aretxabaleta

Tfnoa: 943 791 844 - Faxa: 943 792 941

E-mail: info@eguzkigraf.com



JAUSORO OSTATUA



Ondo pasatu
Aratustek!

Durana kalea 18, 1. Esk.
ARETXABALETA

Tel.: 943 79 89 69
Sakelakoa: 656 74 81 61

IOSU

harategia taberna

Urdaitegia-gozotegia
Kroasantegia
Gertatutako janariak

Mitarte 1 Tel. 943 77 03 08



Javik eta Juanek Aratuste jai zoriontsuak opa dutzue!

Jar zaitez profesional
espezializatuen esku.

Zure osasuna gure ardura da.

ERREHABILITAZIO ETA MASAJE
ZENTRUA



Gora Inauteriak!



ZERBITZUAK:

- ERREHABILITAZIOA
- MASAJE TERAPEUTIKO ETA KIROL MASAJEA
- AKUPUNTURA
- OSTEOPATIA
- ELEKTROTERAPIA - ULTRASOINUAK
- DRENAJE LINFATIKOA ESKUZ
- GIHAR INDARTZEA
- PODOLOGIA



Partikularrekin eta seguru
etxeekin lan egiten dugu:
(Lagun Aro, Adeslas, Mapfre,
etab.)



Belorrieta 6-7 • 20550 Aretxabaleta • Telf.: 943 79 95 64 • Gipuzkoa